

# Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar

**Alvaro Aragón Ruano**

**EHU, Erdi Aroko, Aro Berriko eta Ameriketako Historia Saila**

**UEUko Historia Saila**

Enirio-Aralarreko mendietako basoek ez dute XVIII. mendera arte ustiapen gogorrik jasango. Ordura arte Batasunetako biztanleek behar zuten egurra soilik ateratzen zuten, ia ustiapen industrialik gabe. XVIII. mendean, beheko aldeko hariztiak agortu zirenean, Enirio-Aralarreko pagoak hasi ziren ustiatzen ikatza, itsasontziak edo arma-kajoiak egiteko. Aldi berean, ordura arte “tokian tokiko” abeltzaintza izan zena, erdi trashumantzia bihurtu zen: kostaldeko eta inguruko artaldeak Enirio-Aralar mendietan hasi ziren uda ematen. Aipatutako bi faktoreek –basoaren ustiapenak eta kanpoko artaldean etorrerak–, batik bat XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, Enirio-Aralarreko basoaren atzerakada eragin zuten. XIX eta XX. mendeetan zehar deforestazioa areagotu egin zen, bertako mendiei gaur egun ezagutzen dugun itxura eman arte.

The Enirio-Aralar mountains' woods didn't have to withstand hard exploitations until the XVIIIth century. Until that time citizen of the Unions only extracted the wood and timber they needed, without doing almost any industrial exploitation. In the XVIIIth century, when downward oak graves were exhausted in order to make coal, ships and weapon dramers. Simultaneously, what until then had been a local cattle breeding, turned into mid transhumance: the flocks of the coast and its environs started to spend the summer in the Enirio-Aralar mountains. The two mentioned factors —wood exploitations and the arrival of foreign flocks— most of all at the end of the XVIIIth century and at the beginning of the XIXth century, caused the Enirio-Aralar wood's backward step. During the XIXth and XXth centuries the deforestation increased, giving native mountains the image we know nowadays.

Azken aldi honetan, Enirio-Aralar mendia entzutetsu bilakatu zaigu, bertako artzainek ireki nahi dituzten pistak eta bideak direla eta. Horien aldekoak eta kontrakoak badira; guk ez dugu inoren alde egin nahi. Gure esku dagoena ezagupen historikoak kaleratzea eta ezagutaraztea da. Artikulu honen zergatia horixe da: inori arrazoia eman edo kendu gabe, Aro Berrian zehar Enirio-Aralarrek izan duen ustiapena ezagutzera eman, mitifikazioak eta ohitura historiografiko faltsuak ezeztatzearen.

Bidaia hau 1400. urtean hasi behar dugu; orduan eman zizkion Enrike III.ak Enirio-Aralarreko mendiak Amezketako Joanesi. 1409. urtean Amezketa eta Ordiziako Batasunek eskuratu zituzten; Ordizia Amezketako Joanesen aurka azaldu zen, eta bien arteko auziaren ondoren, Amezketako Ogerrek Ordizia eta Bozueko Batasunei saldu zizkien 1.400 Aragoiko florinen truke (Urzainqui, 1990: 32).

Enirio-Aralarreko Batasunaren mendien jabeak eta kudeatzaileak Ordiziako eta Amezketako Batasunetako hamabost herri ziren: Ordiziako Batasunekoak Ordizia, Lazkao, Gaintza, Altzaga, Zaldibia, Itsasondo, Ataun, Legorreta, Beasain eta Arama; eta Amezketako Batasunekoak Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrain. Hamabost herri hauek urtero biltzen ziren Suegin (Abaltzisketan) mendien inguruko erabakiak hartzeko. Hasiera batean auziak eramateaz Ordizia arduratzen zen; hau da, Ordiziak zuen mendien gaineko jurisdikzioa. Nolanahi ere, Ordizia eta Amezketaren arteko auzi batzuen ondoren, 1682. urtean Amezketak eta Abaltzisketak jurisdikzio gehigarria<sup>1</sup> lortu zuten Aralar eta Enirio mendien gainean, eta jurisdikzio bakarra beren lurraldeen gainean, Ordiziak bezala<sup>2</sup>. 1684. urtetik aurrera, Ordiziak Nafarroatik sartutako abereen harrapaketen gaineko jurisdikzioa izan zuen<sup>3</sup>.

Enirio-Aralar mendiak bi ustiapen nagusi izan ditu: abeltzaintza eta basogintza —baita meatzaritza ere—. XVIII. mendera arte eragin handiena izan zuen jarduera abeltzaintza izan zen; horrela agertzen da behintzat dokumentazioan. Ordura arte basoaren ia ustiapen bakarra abeltzainen beharrak asetzeko egiten ziren mozketak ziren. Gipuzkoako burdinolek hasiera batean beren inguruko basoak ustiatu zituzten, garraio-gastuak ez gehitzearen, baina sutarako egurra agortzen joan zen heinean, gero eta urrutiagoko ikatza erosteari ekin zioten, beren herrietan, herriz kanpo edo probintziaz kanpo; haranetako beheko aldetik gailurretarantz. Pago-basoak 600-700 metrotik gora hedatzen direnez —beraz, haritz-basoak eskuragarriagoak dira— eta haritz-ikatzak bero handiagoa ematen duenez, haritz-basoak izango dira ustiatuenak, baina baita birlandatuenak ere.

---

1. Jurisdikzioa gehigarria denean, parte hartzen duten erakundeek auzi berdinak ikusteko kompetentzia dute; normalean, auzia hasten duenak bukatu egiten du. Jurisdikzioa bakarra eta osoa denean auziak ikusteko kompetentzia erakunde bakar batek dauka.

2. Aralarreko abereen harrapaketei buruzko auzian, bista-autoak (Madril, 1682-III-13) Amezketa eta Abaltzisketari jurisdikzio gehigarria eman zien, baina errebista-autoak (Madril, 1682-VI-22), jurisdikzio gehigarria baieztatu arren, beren ondasun eta lurretan bakarrik exekutatu behar zuela agindu zuen eta ez Ordiziako ondasun eta lurretan; Ordiziak ere bere ondasun eta lurretan bakarrik exekutatu behar zuen eta ez Amezketa eta Abaltzisketako ondasunetan. Errege Baimena 1684ko irailaren 15ean eman zen (Ordiziako Udal Agiritegia, Auzi Kriminalak, Ordizia, 3. Legajoa, 6. Zbk.).

3. Madrilen, 1684ko abenduaren 16an argitaratutako autoa (Ordiziako Udal Agiritegia, Enirio-Aralar Batasuna, 3. Liburua, 2. Exp.).

## 1. Enirio-Aralarreko basoen ustiapena

XVIII. mendean hiru jarduerak eskatuko dute pago-egurra eta sutarako egurra: burdinolek, ontzigintzak eta Errege Arma Fabrikak. Pagadiak XVIII. mendean ustiapen latza jasango dute, haritz-egurra urritzen denean —kontuan izan behar da XVI. mendetik aurrera deforestazioa gero eta gogorragoa izan zela—. Adibide bezala, Segurak lau burdinola izan zituen XVIII. mendera arte eta 1741. urtean bakarra zuen; burdinola hau ia hogeitertan Azi eta Aralarreko basoetatik —pagoetatik— hornitu zen<sup>4</sup>. Pago-ikatzaren erosleak Gipuzkoa osotik etortzen ziren. Bozueko Batasunak 1770. urtean 12.000 karga pago-ikatz saldu zizkion Amasa-Billabonako Ameztoiko Gabrieli<sup>5</sup>. 1773an Bozueko Batasunak 8.000 karga ikatz saldu zizkion Legorretako Etxeberriako Joan Inaziori eta Irimoko Joan Inaziori, Enirioko pago lizarretan<sup>6</sup>.

Esan bezala, pago-egurra oholak egiteko erabiltzen zen, gero arma-kajoiak egiteko. 1804. urtean Artzeluseko Diegok, Muxikako Peiok eta Aiestarango Peio Josek elkarren arteko hitzarmena sinatu zuten Eniritik oholetarako egurra ateratzeko. Artzelusek Ordizia eta Amezketa Batasunei mendi bateko egurra erosi zien Enirion, eta Muxikak eta Aiestaraneke hitzarmena sinatu zuten Soralueko Errege Arma Fabrikarekin kajoiak egiteko oholez hornitzeko<sup>7</sup>.

1791n Diputatu nagusiak —XVIII. mendeko erdialdetik Mendi-Epaile Nagusia— Bozue eta Zaldibiako Batasunen arteko auziari irtenbidea eman zion; auzi hori Aralarreko ustiapenaren inguruan gertatu zen: Zaldibiako auzokoek 1786. urtean egindako mozketengatik, errege ontziak egiteko pagoak mozteagatik —pagoa ontzien barnean erabiltzen zen batez ere—<sup>8</sup>.

Pagoen ustiapenak Aralar eta Enirioko basoen atzerakada ekarri zuen XVIII. mendearen bukaeran eta erakundeen ardura sortu zuen. Erakundeek bi irtenbide proposatu zituzten: basoak berritzea eta prebentzioa.

1784. urtean Enirio-Aralarrek 3.000.000 zuhaitz zituen; horietatik 1.500.000 gazteak ziren, 1.000.000 ustiatzekoak eta 500.000 zaharrak (Mutiloa 1982: 48, 49, 52, 53). XVIII. mendean Gipuzkoako beste Partzuergoen eskarmentuari jarraituz, mendi-ekoizpena saldu eta partaideen artean banatzea erabaki zuten. Bozue Handi eta Bozue Txikiko Batasunek ekoizpena eta ustiapena —ezkurra, zuhaitzak eta egurra— urtero erdibitzen zuten. Aldi berean, Batasun bakoitzak bere partaideen artean zati berdinetan banatzen zuen<sup>9</sup>. 1797an Amezketa eta Ordiziako Batasunek 7.000 karga ikatz saldu zizkieten Urangako Jose Manueli, Enirioko hiru mintegiren hazkuntza ordaintzeko<sup>10</sup>. 1784an basoaren egoera txarra ikusita, Batasunak zenbait arau ezartzea erabaki zuen:

4. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/29.

5. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 1227, 148-150. orr.

6. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 1231, 117-119. orr.

7. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 1952, 29-30. orr.

8. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, CO CRI 1790 (1).

9. Ordiziako Udal Agiritegia, Auzi Zibilak, Ordizia, 2. Liburua, 5. Exp.

10. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 1394, 320-321. orr.

1. Batasun bakoitzak soldatapeko basozain bat aukeratuko du, arauak zaintzeko.
2. Mendia itxi egiten da eta ez da zuhaitzik ematen baimenik gabe.
3. Errege ontziak egiteko zuhaitzak mozten badira ere, hondakinetatik ezin izango da pipak egiteko upa-oholik egin.
4. Pagoak modortzeko agintzen da —ordura arte teknika hau ez zen erabiltzen, eta zuhaitzak pago lizarrak ziren—; hasiera batean Leizetabarrenan eta hurrengo urteetan Lareon, basoa ez agortzeko.
5. Gorostiagabarrenan mintegi bat eratu behar da, zati bat pagoekin eta gehiena haritz eta gaztainondoekin.

1785ean lehen basozainak aukeratu ziren, urtean 80 belloizko errealeko soldatarekin; haien eginbeharrak hauek ziren:

1. Mendian bizi behar dute, irailetik urriaren bukaerara arte, mozketak zaintzeko.
2. Ordezkariek edo basozainak Eniriora pagoak seinalatzera edo sutarako egurra saltzera joaten direnean, basozain berriek beraiekin joan behar dute.
3. Erosleak zuhaitzak botatzera joaten direnean, basozain berrien aurrean egingo dute, gehiegikeriak ekiditeko, eta gauza bera baimenarekin moztera joaten diren auzokoen eta biztanleen kasuan.
4. Basozainek, batera edo bakoitzak bere aldetik, maiz ikuskatuko dituzte basoak.
5. Ordezkariek eta basozainek erosleekin sinatutako baldintzak jakinarazi beharko dizkiete basozain berriei.
6. Gehiegikeriaren bat gertatzen denean bere batasunari jakinaraziko dio bakoitzak.
7. Ezin izango dute beraientzat edo besteentzat moztu.
8. Inoiz ez diete urratzaileei aurre egingo; ez dute inoiz biolentziarik erabiliko, bakarrik jakinarazi.
9. Azaroaren lehenengotik urtea bukatu arte, mendiak bisitatuko dituzte astean behin, neguan zehar, elurrik edo euririk egin ezean, inor mendietan aritu ez dadin<sup>11</sup>.

Azkenik, 1791n Enirio-Aralarreko Batasunak bederatzi arau ezarri zituen basoak kontserbatzeko:

1. Batasunaren baimenik gabe ezin da mendirik saldu, zuhaitz gazterik moztu edo muskilik atera Eniriotik kanpo.
2. Etxeak eraikitzeko materialak behar dituztenek abuztuaren hasieran obretako maisuaren adierazpena aurkeztu beharko dute, behar dituzten materialen zerrenda jakinaraziz. Zuhaitzak ezin izango dira mendian bertan landu, tailerretan baizik.

---

11. Ordiziako Udal Agiritegia, Auzi zibilak, Ordizia, 6. Liburua.

3. Sutarako egurra behar-beharrezkoa denez gero, adarretatik ateratakoa gurdiz edo zaldiz garraiatzea baimentzen da.
4. Mendian abeltzain asko daudenez, beren suak eta beren txabolak eraikitzeke behar adina egur moztea baimentzen zaie.
5. Ikatza egiteko mendi zati bat saltzen denean, Batasunek perito ikazkin bat aukeratuko dute. Ikazkin honek bertan dauden ikatz kargak neurtu eta zenbatuko ditu, enkantea egin aurretik. Ikazkinek beren lana basozainen aurrean egingo dute, nola moztu jakiteko.
6. Muskilak dituzten zatiak itxi egingo dira, abereek jan ez ditzaten. Pirinioetako izeiak laiotzean ereitea gomendatzen da.
7. Bi basozain izango dira, Batasuneko bat, Suegin izendatuak, bi urtetarako, horrela urte batean topo egingo dute basozain zaharrak eta berriak. Gehiegikeriaren bat ez gertatzearren, hilaren lehenengo astelehenetan Enirioko mendiak zeharkatu behar dituzte.
8. Kudeaketaren arduran bi ordezkari egongo dira. Hauek mendi-ekoizpenaz eta bere banaketaz arduratuko dira<sup>12</sup>.

Hona hemen XVIII. mendetik aurrera Enirio-Aralar mendietako basoen ustiapenak lortutako garrantzia. Ikusi bezala, burdingintzak, ontzigintzak, armagintzak, etxegintzak eta tresnagintzak eragindako ustiapen bortitzak —ordura arte gertakari ezezaguna— neurri babesleak ekarri zituen, beti ere XVIII. mendearen azken laurdenetik aurrera. Dena dela, ezin dugu pentsatu XVI eta XVII. mendeetan ustiapen bakarra abeltzaintzarena zenik. Ordizia eta Amezketa Batasunetako auzokoek etxeko sutarako, etxegintzarako eta tresnagintzarako egurra moztzen zuten. 1650. urtean Maizeko Martinek, Ordiziako sindiko-prokuradore nagusiak, Abaltzisketako Sasiain Garateko Martinen aurkako auzia ezarri zuen, Aralarren hesiak eta ezpaten zorroak egiteko egurren lapurreta leporatuz<sup>13</sup>.

## **2. Enirio-Aralarreko abeltzaintza**

Abeltzaintzari dagokionez, Gipuzkoako abeltzaintzaren garapenari buruz okerreko kontzeptua dago gaur egun. Teoria tradizionalak esaten duenez “erdi larraldaketa” —barneko mendilerroetatik kostalderantz— Neolitoan hasi zen eta artaldeak izan dira nagusi orduz geroztik. Baina hori ez da egia. “Erdi larraldaketa” ez zen XVII. mendeko bukaera eta XVIII. mendeko hasierara arte hasi, orduan utzi baitzuten behi- eta txerri-taldeek beren nagusitasuna artaldean alde.

Abeltzaintzaren garapena XIII. mendean hasi zen arautzen. Hiri-gutunen arabera abereek erregeek emandako mendi, larre, sarobe eta uretan larratu zezaketen, baina ez dute hitzik esaten larraldaketari buruz.

XIV. mendean abelazkuntzak eta herrien arteko mugen zehaztugabetasunak tirabira handiak eragin zituzten, baina “eguzkitik eguzkira” oharrarekin konpondu ziren beti. 1390. urtean Abaltzisketa, Amezketa, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegie-

12. Ordiziako Udal Agiritegia, Enirio-Aralar Batasuna, 7. Liburua.

13. Ordiziako Udal Agiritegia, Auzi Zibilak, Ordizia, 6. Legajoa, 6. Zbk.

tak hitzarmen bat sinatu zuten Aralarreko urak, mendiak eta larreak ustiatzeko; hain zuzen ere, hiru azkenekoen abereei Alotza, Eleguzkita eta Arreztarrazko sarobeetatik Aralarreko larreetarantz joaten utzi zitzairen, baina gauean bertaraino bueltatzeko betebeharrarekin; horixe da, inguruko abereen edota Abaltzisketa-Amezketatik kanpoko abereen larratzea “eguzkitik eguzkira” izatea.

Behe Erdi Aroko ohitura hori guztiz araututa geratu zen 1457an, Larreen Ordenantzari esker. Ordenantza horrek “eguzkitik eguzkira” ezartzen zuen larratzea, eta baldintza horrek “erdi trashumantzia” galarazi zuen, abereak arratsaldean jatorriko lekuetara itzultzera behartzen baitzituen. Ordenantza horren jarraipena ezberdina izan zen Gipuzkoako lurraldeetan: Urola eta Deba Arroetan bete arren, Gipuzkoako ekialdean, hau da, Nafarroako mugetan, ez zen onartu. 1519. urteko auzi baten arabera, Ordenantza ez zen Ataun, Lazkao, Olaberria, Idiazabal, Zaldibia, Tolosa eta bere lurraldean (Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduairen, Eldua, Berastegi, Gaztelu, Oresa, Lizartza, Orendain, Altzo, Baliarrain, Abaltzisketa, Amezketeta, Ikaztegieta, Alegi, Albiztur, Anoeta, Zizurkil, Andoain, Amasa, Irura eta Hernialde), Hernani, Donostia, Altza, Oiartzun edo Ordizian betetzen<sup>14</sup>. Beraz, 1457. urteko Larreen Ordenantzak ez zuen Enirio-Aralar mendian jarraipenik izan. Hiribildu baten lurretan sartzen ziren abere guztiak harrapatu egiten ziren; bakarrik abere propioen eta inguruko herrikoen larratzea baimentzen zen, larre-hitzarmen bat sinatu ondoren (aipatutako 1390. urtekoa bezalakoa, adibidez), hori bai, inoiz 12-14 kilometroko erradioa gainditu gabe.

Dokumentuek zein aztarna arkeologikoez egiaztatzen duten bezala, abere-taldeak, behinik behin XVI. mendera arte, behiek eta txerriek osatzen zituzten nagusiki. Behi-taldeen nagusitasuna arkeologiak egiaztatzen du Neolitikotik Erromatarren garaira arte (Altuna, 1980: 338-39; Castaños, 1996: 661) baita Erdi Aroan ere (Mariezkurrena 1981: 200; Padilla 2001). Erdi Aroko agiriek sarobeez, “bustalizez”<sup>15</sup> —non behien “bustoak” edo taldeak gordetzen baitziren— eta, ezkur<sup>16</sup> garaian, txerriez hitz egiten dute, baina horrek ez du esan nahi ardirik edo ahuntzik ez zegoenik; bazeuden, baina kopuru txikian. Datu oso esanguratsua dugu 1025. urtean: Azenarizeko Gartziak, Gipuzkoako jaunak, eta bere andreak, Galgak, San Juan de la Peñari Altzoko Olazabalgo Done Xalbador monastegia eman zioten eta, besteak beste, sei behi (Barrena, 1989: 419). XIII eta XIV. mendeetako dokumentazio gehienetan sarobeez, behiez, txerriez eta abere txikiez (ardiak eta ahuntzak) hitz egiten da, garrantzizko ordena horretan.

Badakigu XV. mendean Aralarren 109 sarobe zeudela, 1452. urteko erabaki baten bitartez, Orreagako Dona Maria Monastegiak Aralarreko mendietan 350 behi zaintzeko baimena zuela eta bertan 22 sarobe zituela<sup>17</sup>, sarobeko 20 behi;

14. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, CO MCI 15.

15. “Bustaliza” *busto* hitzetik dator. “Busto” bat gehienez 800eko behi-taldea da (Yanguas, 1964: 122).

16. Seguruenik *ezkurra*, *lande* edo *glände* sinonimoak dira. Alduides mendien kasuan, Arvizuk “Ezkurtegi Eskubideaz” hitz egiten du: «Se entiende por tal el denominado en francés “glandage”, que consiste en poder llevar a los robledales y hayedos —en las épocas de fruto— los rebaños de ganado porcino» (Arvizu, 1992: 120).

17. Ordiziako Udal Agiritegia, Enirio-Aralar Batasuna, 1. Liburua, 3-5 Exp. 1399. urtean Berastegi eta Elduaiengo auzokoen artean sinatutako Hitzarmenean “*busto e acto de bacas*” erabiltzen da (Lema, 2000: 230).

batez besteko hori aplikatuz gero, garai horretan Aralarren 2.180 behi zeudela aterako zaigu. Behi-taldeek XVIII. mendera arte mantendu zuten beren nagusitasuna.

XVI eta XVII. mendeetan, luberriak, larre-hedakuntza eta basoen atzerakada gertatu zirenean, ardien kopuruak gora egin zuen. Aldaketa honek erritmo ezberdinak izan zituen probintziako lurraldeetan, beranduen Seguran edo Legazpin. XVIII. mendean, zenbait lekutan, Seguran hain zuzen ere, burdinolen krisialdiak (Carrion, 1991: 282) olagizonak burdin-lanetan eta artzaintzan, edo honetan bakarrik aritzera behartu zituen; horrek garai horretan artzaintza errentagarri bilakatu zela egiaztatzen du<sup>18</sup>.

1798. urteko Zarautzko Batzar Nagusietan, Ataunek eskakizun bat egin zuen behi-taldeen nagusitasunari buruz. Ataungo ordezkariaren esanetan ardien kopurua gehitu zenetik, artzainek txakurrekin behiak izutzen zituztenez, behien kopurua urritu egin zen eta haragiaren salneurria igo, nonbait. Ataunek arauak eskatu zituen, batik bat larreak nahikoak ez ziren lekuetan ardien kopurua mugatzeko.

1799ko uztailaren 2tik 12raino bildutako Ordiziako Batzar Nagusietan hautatutako batzar-ordezkari baten esanetan:

Ciertamente, Señor, en tiempo pasado era mas la abundancia del ganado Bacuno, que el del Obejuno en el distrito de vuestra señoría, a causa de ser sus pastos mas a proposito para la manutencion del primero por reducirse sus terminos, y Montes a Bosques, y estar muy poblados de Arboles; por cuyo motivo, no era posible sustentar el numero de Obejuno, que en el dia se encuentra; pero como por la Construccion de Reales Bageles, y reducion de Carbones para las muchas Ferrerías, se han despoblado, y rasado la mayor parte, como no ignora vuestra señoría, no tiene el Ganado Bacuno el necesario alvergue para sostenerse...lo que ha precisado a aminorar esta especie de ganado, y valerse del Obejuno, respecto de que, por el motivo expresado, son mas del caso los Pastos de los Montes en la actualidad para lanar, y el que rinde mayor utilidad, y ventaja al Ganadero...<sup>19</sup>

1802. urtean Lazkaoko alkateak, Zeberioiko Santiago Ramonek, oroitzatzen dioenez, ardi kopuruaren igoera geldiaraz zezan; Artzainek onetsita, ardiek mutioak jaten zituztelako, artzainek txabolak berritu eta suak egiten zituztelako, eta horretarako urtean zehar zuhaitz

---

18. 1741ean Segurako alkateak hau esan zuen: «...por lo que se ha de reputar como si no tubiera aun esta en su territorio El hauerse germado dichas ferrerías ha puesto a mis vecinos y moradores en la precision de aruitrar en otros medios, que en alguna manera suplan esta falta, para alimento de sus familias, y su situacion comoda les ha combidado a dedicarse criar ganado, especialmente menor, tanto, que estos 20 o 30 años se abran puesto de 28 a 30 reuaños, sobre los que hauia de antes, y como la experiencia esta enseñando, que los que se dedicaron a este aruitrio, lo pasan con maiores combeniencias todos los años ba aumentto, y aun este presente tengo noticia, de que se an añadido dos, sin que este aumentto perjudique a los primeros ganaderos, por ser mis jurisdicciones priuatias, y en comun tan dilatadas. Esta experiencia del vien de mis individuos, y de que no ay otro aruitrio para alimentar sus familias y poner en estado a sus hijos, si no labrar sus tierras, que tamuien se experimenta su aumento por los granos que se cojen, y que todo proviene de la aplicación al ganado, me a puesto en el empeño de vna atencion particular de promober este vien sin perjuicio de mis intereses, ni de ningun individuo que no tenga rebaño, si no ganado bacuno...» (Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/29).

19. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD AJI 5/7.

asko mozten zirelako. Arauek moztutako pago bakoitzarengatik kopuru bat ordaintzera behartzen zituen, baina ez zuten betetzen; txostenak honela dio:

...mas no tienen la ejempcion que pretenden ni son acreedores a ella unos hombres que ha pretesto de cuydar vn corto numero de ovejas viven en la mayor parte ociosos y en pobreza hellos y sus familias pues aun la que tiene vn rebaño de cien cabezas ha de tener 6.000 reales invertidos en ellas: dos o tres personas ocupadas en cuidarlas por el verano en Aralar y en el invierno en la costa o en Vizcaya; donde pagan los pastos y el diezmo de los corderos que llegan a tener alli. Y aun las cien obejas produzcan 2.000 reales de vellon en cada año se deja ber que es muy pobre industria la de semejante pastoreo, sin embargo se ha aumentado considerablemente de algunos años a esta parte esta clase de indigentes y segun se ha ido el monte de Aralar de obejas se ha disminuido el ganado bacuno en este pueblo y en otros de este contorno como expuso a vuestra señoría la villa de Ataun en una representacion que dirigio a su junta general ahora pocos años solicitando alguna providencia que evitase la decadencia de carnes que iba a ocasionar los pastores con hacer comer a sus obejas los mejores pastos auyentando de ellos el ganado vacuno incomparablemente mas vttil que el lanar: lo exponen asi a ser prendado por los navarros y cada vez va en menos por lo mucho que desanima a los labradores que antes mantenian bacadas en Aralar el ver y experimentar que los pastores de ovejas les han vsurpado y disfrutan exclusivamente los mejores pastos de este monte<sup>20</sup>.

Artaldeak gehitzea basoaren atzerakadarekin lotuta zegoen zuzenean<sup>21</sup>. Behi-taldeek<sup>22</sup> elikadura zabalagoa dute (belarra, ezkurak<sup>23</sup>, hostoak, garoa) eta itzala behar dute, artaldeek, berriz, belarrarekin nahikoa dute<sup>24</sup>. Basoek Gipuzkoako azalera bete zuten bitartean, behiak eta txerriak izan ziren nagusi, baina luberriak zabaltzen joan ziren heinean eta basoak atzera egin zuen heinean ardiek zabaltzeko aukera izan zuten<sup>25</sup>. Errealitate hau Villafuerteseko Konteak 1817an egindako adierazpenek ziurtatzen dute. Mendiak maiorazkoaren loturetatik askatzeko eta oihantzea suspertzeko bere proiektuan honako hau proposatzen zuen: nahi zuten pertsona guztiei, kanon enfiteutiko baten truke, zuhaitzik gabeko mendi partikularrak birlandatzeko aukera ematea, eremua hesi batez inguratuz. Hesi hauek ostopatzen zuten larratze bakarra artalde trashumantearena zen:

---

20. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/126.

21. Gipuzkoako basoa hostozabalez —haritzez eta pagoz— osatuta dago. Hostotza itxiko basoa, non eguzki izpiak ez baitira pasatzen, belarraren eta basaberaren hazkuntza eragotziz.

22. Azienda gorriaren barnean behiak eta idiak ditugu, eta lehenengoan artean hiru mota: “baserrikoak”, beti ukuluan, “sarobekoak” (“bustos”), sarobe edo kortetan, eta “betizuak”, mendian erdi basati hazten direnak (Ordiziako Udal Agiritegia, Auzi Zibilak, Ordizia, 3. Legajoa, 1).

23. Bai behiek bai txerriek ezkurak jaten dituzte, baina bigarrenak haritz-ezkurra zein pago-ezkurra jaten baditu ere, lehenengoak pago-ezkurak bakarrik jaten zituen (Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 1911, 594. or.; PT 1925, 267-268. or.).

24. Ataurin (Araban) ardiak behien ondoren larratu behar ziren udal propioetan (Martinez de Aguirre, 1982: 221).

25. Emiliano Fernández de Pinedok ere horrela dio: «...La deforestación ocasionada por la demanda de madera para la flota y de carbón para las ferrerías redujo el bosque en el que pacía el ganado mayor, especialmente en invierno. Seguir manteniendo el mismo número de cabezas de ganado requería estabularlo en invierno, alimentándolo con nabo, heno y demás forrajes...». Horregatik azienda gorriak behera egin zuen eta «Por el contrario, los pastos de las zonas deforestadas se adecuan mejor para las ovejas.» (Fernandez de Pinedo, 1983: 100).



...que la pasturación que se ympediría por estos cerramientos, sería la del ganado ovejuno trasumante, no solo por el cerrado de terrenos, sino también por la clase de pastos que se criarían en terrenos arbolados menos propios para este ganado; cuya clase está reconocida en Guipuzcoa como poco útil, y perjudicial a la del Bacuno que es el más interesante, y la cual, la del ovejuno trasumante se ha aumentado mucho con la disminución de arbolados...<sup>26</sup>

Behi-taldeen jaitsierak beste arrazoi nagusi bat izan zuen: 1774an Frantzia eta Nafarroatik iritsitako izurritea<sup>27</sup>.

Honekin XVI. mendera arte behiak eta txerriak nola nagusitu ziren egiaztatzen saiatu gara. Artaldeak egon arren, bigarren mailan zeuden, eta larreak areago-tzearekin eta deforestazioarekin aurrera egin zuten. Denboran zehar, errealitate horrek abeltzainen ohitura eta zikloetan aldaketak eragin zituen. Trashumantzia, ordura arte tokian tokiko maila bateraino mugatua zegoen, haranetako beheko aldetik gailurretarrantz, eta inguruko herrien artean; baina XVII. mendearen bukaeran, gero eta handiagoak zirenez artaldeak larre gehiago behar zuten<sup>28</sup>, eta bideak aldatu zituzten, probintzia mailara zabalduz. Tokian tokiko larreek ez zuten batez ere artaldean eskaria betetzen; horregatik artzain batzuek —denak ez baitziren trashumanteak<sup>29</sup>— aldaketa sistema berri bat egitera behartuta ikusi zituzten beren buruak, kostaldeko eta barneko mendilerroetako larreak erabiliz.

Amezketako abereak XVII. mendearen bukaeran hasi ziren ailegatzen Azkoitiraino negua pasatzera, Azkoitiko 1696. urteko Udal Ordenantzek baieztatzen duten bezala<sup>30</sup>, eta 1773. urterako kostalderaino (Deba)<sup>31</sup> heldu ziren. Amezketako abere-taldeak 1726-1728an hasi ziren noizean behin Oiartzun eta Jaizkibelerraino ailegatzen. Halere, udalen eta auzokoen erantzuna bizkorra izan zen, eta abere eta abeltzain kanpotarrak kanporatu egin ziren. Baina 1734an, auzokoen ezezkoaren gainetik, Oiartzungo udalak baimena eman zien artaldeein —seguru asko kopurua ez zelako oso handia—<sup>32</sup>.

Larreen eskasia zela eta, XVIII. mendeko zazpigarren hamarkadan abereen mugimenduaren askatasunaren aldeko borroka berpiztu egin zen. 1772an egindako Hernaniko Batzar Nagusietan Foruen XL. Tituloaren I. Kapitulua aldatzeko eskaera egin zen, behi- eta ardi-taldeak udal mendietan aske larratu zitezten, bai egunez bai gauzez —mendi partikularretan baimenduta zegoela suposatzen da—, maiatzeko Done Gurutzetik iraileko Done Gurutzeraino, baina ez zen onartu. Berriz 1773an eskaerak errepikatu egingo dira, kasu honetan Mutiloa, Gabiria, Ormaiztegi, Azpeitia, Idiazabal, Amezketak, Zaldibia eta Albizturren eskutik, zeinek “eguzkitik eguzkira” oharra luzatzea eskatzen baitzuten, abere-taldeak mantentzeko ez baitzen nahikoa. 1773ko uztailaren 2tik 8ra ospatutako Elgoibarreko

26. Zabalatarren Agiritegia, 104-14.

27. Ordiziako Udal Agiritegia, Dekretu Liburuak, 3.

28. Barandiaranek adierazten duenez: «La insuficiencia de los pastos de las regiones bajas y los contratos entre las tierras altas y bajas son las que provocan la trashumancia...» (Barandiaran, 1953-1957: 7).

29. 1760. urtean Zizurkilen erdi irabazte eta galtze elkarte osatu zen 80 ardi udan eta neguan Zizurkilen bertan zaintzeko (Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 2690, 112-115. orr.).

30. Azkoitiako Udal Agiritegia, 1/1.2.

31. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/25.

32. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/26.

Batzar Nagusietan, Elduaie eta Berastegik larratze askearen arriskuez ohartarazi zuten, beren samintasuna adieraziz eztabaida berriz piztu zelako, zeren eta: «...de trescientos años que toda, o la mayor parte de la Provincia se conserva sin debates con la accionada, y justificada disposicion del expresado capitulo 1...». Hauen aburutan basoa eta bere inguruko jarduerak izango ziren kaltetuenak, aldaketa hori gertatuz gero<sup>33</sup>.

Une horretan Larreen Ordenantza eta hitzarmenak ez ziren eraginkorrak, abereek ezin baitzuten: «...subsistir en muchas Republicas con la observancia rigurosa de la limitacion de pastar unicamente de sol a sol...». “Eguzkitik eguzkira” oharra larre beharraren kontrakoa zen<sup>34</sup>.

Abere trashumanteen —behintzat behi eta ardiena— ailegatze ugaria Aralarra ezin da XVIII. mendearen erdia baino lehen jarri. Amezketan, Ordiziaren aurkakoa izan arren, Orreagako Errege Etxearen ahalordedun bezala: «...empezó mucho despues de mediados del presente siglo a introducir rebaños de ganados de los naturales de Andoain y de otros pueblos forasteros en los sitios mas proporcionados y ventajosos de Aralar diciendo que eran seles que compro a dicha Real Casa de Roncesvalles...». Batasunetako zenbait abeltzainek negua Bizkaian pasatzen zuten bitartean, eta beste batzuek, udan Aralarra igo arte, lursoroak laboratzen zituzten bitartean<sup>35</sup>.

Elgoibarreko Batzar Nagusietan, abuztuko Dona Mariatik Gabonetara arteko larratze askearen aldeko Azpeitiko ordezkariak deskribatzen zuten nola Idiazabal, Amezketan eta beste leku batzuetako abeltzainek «...invernaban sus ovejas acia la Marina, y Pastos de las Republicas inmediatas, y de la villa de Azpeitia y bolbian por la Primabera a los pastos de las referidas Villas...». Azpeitiak larratze askea eskatzen zuen, izan ere «...el transito a la Marina, no podria mantenerse este (aberetaldea) con el Ynbierno, por lo riguroso que suele ser en las expresadas villas de Ydiazabal, y otras...»<sup>36</sup>. Neurriaren kontrakoek askatasunak abere taldeen nahasketa ekarriko zuela esaten zuten; oztopo hori gainditzeko herri bakoitzeko taldea ikur batekin seinatzea proposatu zen. Baina azkenean Batzar Nagusiek Foruen jarraipena agindu zuten<sup>37</sup>. Segurako udalak gauza bera agindu zuen, eta 1779ko uztailaren 18an egindako dekretu baten bidez kanpoko abereen larratzea

---

33. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/64.

34. “Eguzkitik eguzkira” oharra ez zuen kostatik mendilerroetarainoko bidea egun bakar batean egitera ahalbidetzen. Horrela gertatzen zitzaieen Altxaniara joan nahi zuten Legazpiko artaldeei: «...lo quarto si tambien es cierto que por la mucha distancia que hay de dicha villa Legazpia a los expresados montes, y terminos de la Parzoneria si se prohibiese albergar en ellos a los ganados lanares de dicha villa seria lo mismo que privarles de todo pasto en los tales montes y terminos pues ni aun tendrian tiempo bastante por el dia para ir y bolber caminando a un paso regular...» (Legazpiko Udal Agiritegia, 136-14).

35. Ordiziako Udal Agiritegia, Enirio-Aralar Batasuna, 3. Liburua, 8. Exp.

36. Auzi baten frogaketetan Jose Zubimendi, mendi aztertzailea, Zabalako Juan Ignazio, behatzaila, eta Izagirreko Antoniok hauxe erantzun zuten: «...que estos muchissimos años solia vajar mucho Ganado Bacuno, y Obejuno de las villas de Ydiazabal, Amezqueta, Zaldibia, Albistur, Beasain y otras partes a imbernar y pacer hacia la Marina, y Republicas inmediatas, como tambien a los montes de Azpeitia, y bolbian por la Primabera a los pastos de dichos lugares, con sus respectivos pastores...». Debekuak arkume eta gaztaren salneurrien gorakada ekarriko zuen.

37. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, R 55.

debekatu zuen<sup>38</sup>. Nolanahi ere, zenbait udalek beren erabakiak hartu zituzten, eta ezari-ezarian kanpoko abereen sarrera baimentzen hasi ziren; Getariako udalak 1785. urtean Nafarroatik etorritako behi taldeak lurraldeko baserri eta Zarautzekin batera zituen artadietan —behi bakoitzeko eta neguko 4 errearen truke— larratzea baimendu zuen; dena dela, taldeak txikiak ziren, 11-12 behikoak<sup>39</sup>.

Larratze askatasunaren polemika edo eztabaida 1800eko Azkoitiko Batzar Nagusietara luzatu zen. Hala eta guztiz ere, egoerak aurrera egin zuen, gaueko larratzearen debekua inguruko abere kanpotarrentzat bakarrik baitzen, auzokoen-tzat askea izanik. Abere talde trashumanteei dagokienez, udalek gauean larratzen baimentzeko erantzukizuna zuten. Oso esanguratsua da testuak *trashumante* hitza lehenengo aldiz erabiltzen duela eta inguruko abereak talde kanpotarretatik bereizten dituela; hau da, ezberdintzat hartzeak abere-talde trashumanteak erre-aitate finkatua direla esan nahi du: urrutitik (12-14 kilometro baino gehiago) datozen abere-taldeak dira. Dena dela, probintzian zehar legearen erabilpena eta abereen ohiturak ezberdinak izango direla garbi geratzen da.

Kanpoko abereen mehatxuaren aurrean, udalen erantzuna gogortu egin zen XVIII. mendeko azken hamarkadan, harrapaketak gehituz, kostaldeko herrietan zein Aralar eta Aitzkorri mendietan<sup>40</sup>. Baina gauzak pitin bat aldatu ziren. 1797an Ataunek, Enirio-Aralarren kanpoko abereen sarrera debekatzeko eskatu arren, bakarrik Ordiziako Batasunaren diru beharrei aurre egiteko onartzen zuen kanpoko abereen sarrera; hori bai, diru kopuru baten truke eta kalte gutxiko lekuetan. Diru zailtasunak gairitu eta mendien mozketak saldu ondoren, kanporatu egingo ziren<sup>41</sup>. Zaldibiak, berriz, inongo aitzakiarik gabe, debekua eta diru zorrak basoen salmentarekin ordaintzeko eskatu zuen, eta horrela auzoak «...se dediquen con el maior esmero al fomento del Ganado; mas ningun adelantamiento podrian conseguir si se les privase de las prerrogativas de que ha gozado en tiempo inmemorial la Vnion de Villafranca, en orden a disfrutar la pastura de los Montes de Enirio y Aralar privativamente, y sin que se haya permitido introducir bajo pretexto alguno Ganado de fuera de la Unión.»<sup>42</sup> Horrek ere Enirio-Aralarren ez zela inoiz egon kanpotik etorritako trashumantziarik egiaztatzen du<sup>43</sup>.

Azkenean, mende aldaketarekin, kostaldeko zenbait udalek —lehen kontra azaldu zirenak— kanpoko abere talde trashumanteen sarrera baimendu zuten, 1800eko Azkoitiko Batzar Nagusietan irekitako aukerari esker. 1805ean Billabona, Amezketeta eta Errezilgo artzainei Jaizkibelen larratzeko baimenak zabaldu zituzten Pasaia, hamarreneko diru kopuru baten truke.

---

38. Partzuergoaren Agiritegia, B, 3, 1/3.

39. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, CO ECI 4588.

40. Ordiziako Udak Agiritegia, Enirio-Aralar Batasuna, 3. Liburua, 8. Exp.; Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, JD IM 2/17/111.

41. Ordiziako Udak Agiritegia, Enirio-Aralar Batasuna, 7. Liburua.

42. Idem.

43. Inazio Agirre eta Arineko Joan Dorronsorok, Atauneko Udak Agiritegiko dokumentazioa aztertu ondoren, udan Aralarra joaten ziren abereak, neguan beheko aldean egoten zirela diote. Arrondoa auzoko artzainek Aia auzoan zituzten beren sarobeak, neguan behe eta erdi aldekoetan, eta udan goiko aldekoetan larratzen zituztelarik. Halaber, Insusti mendian larratzen zuten otsailaren erditik apirilaren bukaerara arte eta irail osoan, neguko edo udako larreetara joan baino lehen (Agirre, 1955: 73; Arin Dorronsorok, 1955: 90).

Artaldeak baserri partikularretara ailegatzen ziren eta, nahiz eta kanporatzeak jasan, pixkanaka larratzeko askatasuna lortzen zuten, udalek mendiei etekin berria ateratzeko aukera ikusten baitzuten —ordurako basoak nahiko agortuta zeuden eta errentagarritasun txikia zuten—. Auzoko batzuen aurkakotasuna izan arren, jarrera ezberdina somatzen zen: kanporatu ezean, kanpoko abereak artzainekin bakarrik larratuko ziren, udal mendietan eta inoiz lur partikularretan. Udalak harrezkero horrela jokatu zuen:

1. Eskatzaileak udal larreetan aritu beharko du bere ardiekin, inoiz larre partikularretan —udalaren baimena lortzen badu bakarrik—, eta beti bere artaldea kontrolatuz.
2. Artaldea zaindu beharko du, bere aldamenetik aldendu gabe. Horrela jokatu ezean, isuna ezartzen zaio lehenengo aldiz eta kanporatu hurrengoetan.
3. Suteak eragotzi behar ditu, eta gertatuz gero alkateari abisua eman.
4. Hamarreanean lagundu behar du.
5. Hiribilduko artzainek bezala, zuhaitz gazte kopuru bat entregatu beharko du.

### 3. Ondorioak

Beraz, Gipuzkoan “Erdi trahumantzia”, barneko mendilerrotik kostalderaino —gaur egun irauten duena— ez da antzina-antzinakoa; gaur arte, dokumentu edo aztarna arkeologikorik gabe, esan ohi den bezala. Trashumantzia hau, behintzat maila garrantzitsu batean, XVII. mendearen bukaeran edo XVIII. mendearen hasieran hasi zen kostalderantz, eta XVIII. mendearen bigarren erdian mendilerroetarantz, ezberdintasun geografiko garrantzitsuekin.

Prozesu hau oso luzea izan zen eta aipagarriena leku hartzaileetako udal eta auzokoen aurkakotasuna izan zen, bi une nagusirekin: XVI. mendearen hasiera eta XVIII. mendearen bukaera. Lehenengoan Ordenantza osoa jarri zen zalantzan, batez ere abere-taldeen egoitzari dagokiona; bigarreanean, berriz, Ordenantza onartu arren, “eguzkitik eguzkira” oharra aldatu nahi izan zen eta larratzeko askatasuna lortu. Dena dela, prozesuan aipagarriena berdintasun eza izango da, jarrera orokorren artean salbuespenak baitzeuden; XVI. mendean zein XVIII. mendean, leku bakoitzean baso, larre, abere kopuru eta abere-talde ezberdintasunak zirela eta; kontuan eduki behar da larre berrietan larratzeko baimena eskatu zutenak barneko mendilerroetako abeltzainak izan zirela —eta horien artean Amezketakoak—, ez kostaldekoak.

Garai horretan bi jarrera ikusten ditugu, abere-eredu ezberdinekin: XVII-XVIII. mendera arte, ekialdera (Hondarribitik Idiazabaleraino) probintziako beste herrien aurrean; XVIII. mendean Deba eta Urola arteko lurraldekoa (Amezketatik kostalderaino) besteen aurrean. Seguruenik egoera horren zergatia bi ereduak Aro Berrian zehar izan zituzten egoera ekonomiko ezberdinetan datza: lehenengoan ontzigtza eta burdingintza nagusi zirenez, basoaren ustiapena eta garapena ez zegoen abeltzaintzaren menpe; bestean baserri-girokoan —hobeto esanda, ez hain industrialia eta komertziala— hiru jarduerak uztartuago zeuden, lehenago

---

44. 1805eko azaroaren 24an emandako Larratze-baimena (Pasaiaiko Udal Agiritegia, C, 5, II, 2/2).

jarduerak garrantzi gutxiago baitzuten, eta abeltzaintzarekin elkarbizitza hobea baitzen.

Aldaketak apurka-apurka gertatu ziren, abereen kopuruaren eta elika-baliabideen arabera: lehenbizi, XVI. mendera arte, ekialdean abereak beren herrietan larratu zituzten, kanpoko abereen sarrera debekatu, eta probintziako beste lurraldeetan inguruko abereen larratzea “eguzkitik eguzkira” onartzen zen bitartean; bigarren memento batean, XVII. mendean, gehienek inguruko larratzea lortu zuten; hirugarren fasean, XVII. mendearen bukaera eta XVIII. mendearen hasiera artean, trashumantzia askea ezartzeko lehenengo saiakerak egin ziren, baina probintziako erakundeen eta zenbait hiribildu hartzaileen baimenik gabe; azkenik, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, kostaldetik mendilerroetarantzeko bidaia ezarri zen, artean ezberdintasun geografikoekin, baina probintziako erakundeen baimenarekin.

Udalek aukera eta diru iturri berriak ikusi zituzten, eta horregatik, apurka-apurka, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, prozesua bideratzen joan ziren, azkenean XIX. mendearen lehenengo hamarkadan abereen larratzea udan edo neguan baimendu arte<sup>45</sup>. Probintziako erakundeen jarrerak ere bilakae- ra interesgarria izan zuen: XVI eta XVIII. mendeen artean Larreen Ordenantza betetzea defenditu zuten, hau da, larratze askea, eguzkitik eguzkira, kanpoko abereen larratzea debekatu; XIX. mendearen hasieran leku bakoitzean abere trashumantei gaua igarotzeko baimena emateko aukera eman zieten.

Horrek ez du esan nahi trashumantziarik ez zegoenik. “Erdi trashumantzia” sortu arte, bazegoen “tokian tokiko trashumantzia”, non abere taldeak negua haranaren beheko aldean igarotzen zuten eta udan haranaren gailurrera igotzen baitziren, herrian bertan edo inguruko herrietan<sup>46</sup>. Trashumantzia hori herri bakoitzeko abere-taldeei zegokien, eta behi- eta txerri-taldeei lotuta zegoen, basoa- ren ustiapenarekin batera. Beraz, behar ez zelako ez zegoen “Erdi trashuman- tziarik”; abere-taldeen beharrak “tokian tokiko” trashumantziak asetzen zituelako. Baina artaldean hedakuntzak, Gipuzkoako basoa- ren atzerakada zela eta, abere kopuruaren eta baliabideen arteko oreka kolokan jarri zuen. Larre beharrak, ardi hedakuntza kontrolgabekoa zela medio, bi irtenbide zituen. Bata, herri bakoitzeko larreen zabalkuntza, haranean nahiz gailurretan izan zitekeen, baina horrek basoa- ren atzerakada eta lursoroak biokupatzea ekarriko zukeen, ontzigitzarekin, burdingintzarekin eta nekazaritzarekin tirabira berriak sortuz. Halaber, horrek herrien arteko ezberdintasunak areagotu zitzaizkeen, ez baitzituzten abere-talde, baso zabalera edo lurralde berdinak. Beste irtenbidea, aurrera eraman zena, probintziako abere-talde guztientzat, bertakoentzat zein kanpotarrentzat urte

---

45. Pasaia ez bezala, Hernanik kanpoko abere taldeen larratzea eragotzi zuen, bere auzokoan egonezinen aurrean; horien esanetan —gehienetan nekazariak ziren—, behientzat beharrezkoak ziren larreak kentzen zizkieten artaldeak. 1803ko apirilaren 3an Hernaniko Udalak Elduaieneko artalde baten kanporatzea agindu zuen, are gehiago Elduaieneko Udalak kanpoko artaldeak larratzen uzten ez zituela kontutan harturik (Hernaniko Udal Agiritegia, A, 1, 11). Hernaniko Udalak 1804. urtean bere mugetatik 6.000 ardi pasatuko zirela kalkulatu zuen (Gipuzkoako Agiritegi orokorra, JD IM 2/17/134).

46. 1745ean, Altzako Juan Angel Paradak, larratze-gehiegikerien aurrean, Hondarribiako alkatearen aurrean, Hondarribiako abeltzainek Urumeako mendietan, Altzakoek Jaizkibelen baino kalte gehiago egiten zituztela adierazi zuen; horrek bide motzeko trashumantzia zegoela frogatzen du (Hondarribiako Udal Agiritegia, C, 5, II, 10/1).

osoan zehar baldintza berdinetan, udan zein neguan, herrien mugak gaindituz, larreak izateko aukera ematen zuen sistema aurkitzea zen. Horrela ezarri zen Aralar, Aitzkorri eta Elgetako mendilerroetaranzko trashumantzia udaberri-udan, eta Bizkai, kostalde eta inguruko lurretaranzkoa udazken-neguan (hori bai, tokian tokikoa desagertu gabe).

## Bibliografia

- Agirre, I. (1955): "Descripción y área del pastoreo en Aya de Ataun", *Anuario de Eusko-folklore*, XV. alea.
- Altuna, J. (1980): "Historia de la domesticación animal en el País Vasco desde sus orígenes hasta la romanización", *Munibe*, Aranzadi Zientzi-Elkartea, 1. Fasz.
- Arin Dorronsoro, J. (1955): "Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun", *Anuario de Eusko-Folklore*, XV. alea.
- Arvizu Aguado, F. (1992): *El conflicto de los Alduides (Pirineo Navarro)*. Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- Barandiaran, J. M. (1953-1957): "Aspectos sociográficos de la población del Pirineo Vasco", *Eusko-Jakintza*, VII.
- Barrena Osoro, E. (1989): *La formación histórica de Guipúzcoa*. Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Carrión Arregui, I. M. (1991): *La Siderurgia Guipuzcoana en el siglo XVIII*. EHU, Bilbo.
- Castaños Ugarte, P. M. (1996): "El pastoreo y la ganadería durante la romanización en el País Vasco", *Primer coloquio internacional sobre la Romanización en Euskal Herria*, Eusko-Ikaskuntza, Donostia.
- Fernández de Pinedo, E. (1983): "Estructura de los sectores agropecuario y pesquero vascos (1700-1870)", *IX Congreso de Estudios Vascos, 1983, Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Eusko-Ikaskuntza, Bilbao.
- Lema, J.A. et alii (2000): *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1256-1548)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Mariekurrena, K. & Altuna, J. (1981): "Alimentación de origen animal de los habitantes del Castillo de Aitzorrotz", *Munibe*, Aranzadi Zientzi-Elkartea, 3-4. Fasz.
- Martínez de Aguirre, J.M. (1982): "Ganadería y pastoreo en Aauri [Álava]", *Boletín de la Institución "Sancho el Sabio"*, XVI. zkia, Gasteiz.
- Mutiloa Poza, J. M. (1982): *Guipúzcoa en el siglo XIX: Guerras, Desamortización, Fueros*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia.
- Padilla, I. (2001): "Intervenciones arqueológicas en los castillos de Mendikute (Albiztur) y Ausa (Zaldibia)", *Castillos medievales de Navarra y Gipuzkoa. Un ámbito compartido hace 800 años*, 2001eko urtarrilaren 13an Tolosan izandako mahaingurua.
- Urzainqui Miqueleiz, A. (1990): *Comunidades de montes en Guipúzcoa: las parzonerías*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Yanguas Miranda, J. (1840-1843): *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*, Javier Goyeneche, Francisco Erasun..., Iruñea, 4 bolumen [1964, Bianako Printzea, Iruñea, 3 ale].